



ZALDIBIAKO UDALA
(Gipuzkoa)

RESTI PILOTALEKUA
Jolas Librerako Araudia 2020/11/03

EGUNAK: azaroak 3, asteartea eta azaroak 4, asteazkena **PROBAKO IREKIERA**

ORDUTEGIA: 16:00etatik 18:00etara.

Covid-19 gaitza dela eta, pilotalekuaren erabilerarako jarraian zehazten diren neurriak:

NEURRI OROKORRAK:

- **Gomendatzen da, ateri den egunetan gutxienez kanpoko espazioak lehenestea.** Covid-19aren kutsagarritasuna biderkatu egiten da eremu itxietan.
- Pilotalekurako **sarrera Haurreskola aldeko atetik** egingo da eta **irteera futbol zelai aldetik**. Ezinduen eta haur-aulkiak dituztenen kasuan bai sarrera bai irteera Haurreskola aldetik egingo da, aldapa dagoen aldetik.
- Frontoira sartzean eta frontoitik irtetean **eskuak bertan kokatutako gelez igurtziko dira edota bertako komun publikoan ur eta xaboiez garbituko dira.**
- **Erabiltzaileek jende pilaketa saihestuko dute eta segurtasun distantzia errespetatzeko ahalegina egingo dute.**
- **Pilotalekuan ezingo da jan, ezta edan ere. Salbuespenak: ura edatea eta haurren askari edo merienda.** Azken honetan, eguraldi ona bada kanpoan meriendatzea hobesten da eta txarra bada Pilotalekuko **goiko pasilloan edo gradetan eserita, ez kantxan.** Merienda-hondakinak dagokion eran sailkatuko dira frontoiko hondakin-ontzietan.
- **Erabiltzaileek frontoia garbi mantentzen lagunduko dute, hondakinak ez dira lurrera botako:** zorroak, pipa-azalak... Erratza eta pala utziko dira erabiltzaileen eskura halako kasuetan garbiketa egin ahal izateko.
- **Maskara jantzita izango dute erabiltzaileek.** Salbuespenak kirol jarduera antolatuetan izango dira, bakoitzari dagokion baimenean jasotakoa bete beharko da kasu hauetan.



ZALDIBIAKO UDALA
(Gipuzkoa)

- **Arreta jarriko da jende askok uki ditzakeen azalerak ukitzean**, ahal dela saihestuz: grada-eserlekuak, goiko pasilloko baranda, ate-heldulekuak...

JOLAS ETA JARDUERA LIBREARI DAGOKIONEZ:

- **Adin txikikoak helduen ardurapean** egongo dira erabilera baldintza hauek betetzen direla ziurtatzeko.
- **Maskara jantzita izango da uneoro (6 urtetik gorako kasuan).**
- **Banakako ariketak edota distantzia fisikoa bermatzen duten ariketak lehenetsiko dira. Taldean aritzekotan gehienez 6 lagun elkartuko dira** eta ahal den neurrian, kontaktu fisikoa izatea saihestuko da.
- **Eskalatzeko txokoa ezin izango da erabili** protokoloa zehaztu arte. Udalak hori bermatzeko neurriak hartuko ditu.

Zaldibian, 2020ko azaroaren 3an



Eztitxu Mujika Mariezkurrena
Zaldibiako Alkatea